

2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 04 ARAUBIDE JURIDIKOAREN
ZUZENDARITZA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2009

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 04 DIRECCIÓN DE RÉGIMEN
JURÍDICO

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 20ko 39/2008 Foru Dekretuaren bidez, Diputatu Nagusiaren Sailaren egitura organiko berria onartu zen. Araubide Juridikoaren Zuzendaritzari Aldundiaren lege zerbitzu nagusien kudeaketa eta Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen lehendakaritza dagozkie.

Zuzendaritza hori honako zerbitzu hauek osatzen dute: Aldundiaren Idazkaritza Nagusiaren Zerbitzua, Lege Aholkularitza Zerbitzua, Araubidezko Garapenerako eta Biltzar Nagusiekiko Harremanetarako Zerbitzua, Arabako Administrazioari Erakunde Juridikoa eta Diputatu Nagusiaren Idazkaritza Tekniko Juridikoa eta Herritarrentzako Arretaren Atala.

Diputatu Nagusiaren Araubide Juridikoaren Zuzendaritzan, hainbat gairi buruzko aholkua eman zaio diputatu nagusiari, hala eskatu izan zaionean.

Diputatu Nagusiaren Idazkaritza Teknikoko Zuzendaritzak fede publikoa eman du, Foru Aldundiko zerbitzu eta bulegoek emandako ziurtagiriak jaulkiz, dagokionaren aurrean ondorioak izan ditzaten.

Era berean, xedapenen legezkotasuna kontrolatzeko txostenak ikertu, aztertu eta egin dira. Honakoak jasotzen dituzten liburukiak egin dira, zuzendaritzen araberako sailen eta xedapenetan sailkatuta: zerga arloko premiazko araugintzako dekretuak; foru dekretuak eta diputatu kontseiluaren hitzarmenak; diputatu nagusiaren foru dekretuak; eta foru aginduak.

Lege Aholkularitza Zerbitzuari dagokionez, Arabako Foru Aldundiaren defentsa juridikoa egin da, bai

I. MEMORIA

Mediante Decreto Foral del Consejo Diputados 39/2008, de fecha 20 de mayo, se aprobó la nueva estructura orgánica del Departamento de Diputado General, correspondiendo a la Dirección de Régimen Jurídico la gestión de los servicios jurídicos centrales de la Diputación y la Presidencia de la Comisión Consultiva de la Administración Foral de Álava.

Configuran dicha Dirección los Servicios de Secretaría de la Diputación, Asesoría Jurídica, Desarrollo Normativo y de Relaciones con las Juntas Generales, Organismo Jurídico Administrativo de Álava, Secretaría Técnico-Jurídica del Diputado General y la Sección de Atención Ciudadana.

Por la Dirección de Régimen Jurídico del Diputado General, se ha llevado a cabo el asesoramiento al Diputado General, en diversos temas que, en el transcurso del ejercicio, le han sido demandados.

Por la Secretaría General de la Diputación, se ha dado fe pública, mediante la emisión de los distintos Certificados emitidos por los Servicios y Negociados de la Corporación, a fin de que surtan efectos ante distintas instancias.

Se ha procedido, igualmente, al estudio, examen y emisión de los correspondientes informes de control de legalidad de las distintas disposiciones. Se han elaborado los diferentes tomos que recopilan los Decretos Normativos de Urgencia Fiscal, Decretos Forales y Acuerdos del Consejo de Diputados, Decretos Forales del Diputado General, Ordenes Forales, desglosados por Departamentos y Resoluciones adoptadas por las diferentes Direcciones.

Por lo que respecta al Servicio de Asesoría Jurídica, se ha procedido a la defensa jurídica de la Diputación Foral de Álava en procedimientos judiciales de cualquier orden en los que la Corporación figura

2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 04 ARAUBIDE JURIDIKOAREN
ZUZENDARITZA

Foru Aldundia auzi jartzaile izan denean, bai eta demandatua izan denean.

Eskatu zaizkion zuzenbide txostenak eman dira eta lege aholkularitza eman zaie Foru Aldundiko zerbitzu eta bulegoei.

Araubidezko Garapenerako eta Biltzar Nagusiekiko Harremanetarako Zerbitzuak egiteko hauek ditu:

- 1) Administrazio arauzko xedapen nahiz ebazpenak eta parlamentu bultzada eta kontrolko ekimenak egin, proposatu eta horien berri ematea.
- 2) Aldundia eta Biltzar Nagusiak koordinatzeko unitatea izatea.
- 3) Dokumentazio juridikoko lanak egitea.

Arabako Lege eta Administrazio Erakundeak zerga eta bilketa gaietako administrazio berrikuspenak egiteko funtzioa du, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Ekonomia Ituneko Bosgarren Xedapen Gehigarriaren arabera. Xedapen horrek, izan ere, lurralde historikoetako erakundeei eskumen hori esleitu zien, eta Estatuko Ogasun Publikoak gai horri buruz dituen eskumen eta eskubide berak aitortzen die.

Hori garatuz, Arabako Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrean, otsailaren 28koa, xedatuta dago zergen kudeaketaren, likidazioaren eta bilketaren ekintzen aurkako erreklamazioak ebaztea ekintza horiek onetsi zituenaz beste organo baten esku jarriko dela, eta organo hori Arabako Lege eta Administrazio Erakundea izendatuko dela.

Hari hori jarraiki, norbanakoen edo norbanakoen eta herri erakundeen arteko erreklamazioak ere ebazten ditu zerga ondorioak, atxikipenak edo itzulketak direla medio; baita Arabako Foru Aldundiaren edo honekin zerga bilketarako hitzarmena duten beste administrazioen alde zerga izaerarik ez duten eskubide publikoko sarrerak derrigorrezko bidetik biltzearen kontra jartzen direnak ere.

Azkenik, lurralde historikoko toki erakundeek

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2009

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 04 DIRECCIÓN DE RÉGIMEN
JURÍDICO

como demandante o demandada.

Se han emitido los informes en Derecho que les son solicitados y efectuado el asesoramiento jurídico a las diferentes Dependencias y Servicios de la Diputación Foral.

El Servicio de Desarrollo Normativo y Relaciones con las Juntas Generales, tiene encomendadas las siguientes funciones:

- 1) De informe, propuesta y elaboración de Disposiciones reglamentarias y resoluciones administrativas y de las iniciativas de impulso y control parlamentario.
- 2) Unidad de coordinación de la Diputación con las Juntas Generales.
- 3) Trabajos de documentación jurídica

El Organismo Jurídico Administrativo de Álava tiene encomendada la función de revisión administrativa en materia tributaria y recaudatoria, en ejercicio de la competencia que la Disposición Adicional Quinta del Concerto Económico aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, atribuye a las Instituciones de los Territorios Históricos, a quienes reconoce las mismas facultades y prerrogativas que al respecto tiene la Hacienda Pública del Estado.

En desarrollo de la misma, la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, prevé que la resolución de las reclamaciones contra los actos de gestión, liquidación y recaudación de los tributos se encomendará a órgano distinto del que aprobó aquéllos y que este órgano se denomina Organismo Jurídico Administrativo de Álava.

Por extensión, resuelve además las reclamaciones entre particulares o entre particulares e Instituciones Públicas con ocasión de repercusiones, retenciones o reembolsos de impuestos, y las promovidas contra la recaudación ejecutiva de ingresos de derecho público de naturaleza no tributaria a favor de la Diputación Foral de Álava o de otras Administraciones con las que exista convenio de recaudación.

Finalmente, conoce también de las reclamaciones contra los actos que sobre este tipo de materias

2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 04 ARAUBIDE JURIDIKOAREN
ZUZENDARITZA

honelako gaietan onesten dituzten ekintzen aurkako erreklamazioak ere ezagutzen ditu, foru jurisdikzio berrikuslearen mende berariaz eta oro har jartzeko kasuetan eta kudeaketa hitzarmenetan.

Idazkaritza Tekniko eta Juridikoko Zerbitzuak –hari dago atxikita Herritarrentzako Arretaren Atala– honako betebeharrak ditu besteak beste: Sailaren aurrekontuaren proiektua egitea; sailaren ekonomia, administrazio eta kontabilitate arloak kudeatzea eta kontrolatzea; Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialaren argitalpena kudeatzea; Gizartearekiko Komunikaziorako Bulegoa, agirien irteera eta sarrera erregistroa eta jendeari laguntzeko atala zuzentzea, Arabako Eurpe Direct, Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Idazkaritza eta hitzarmenen eta ordezkarien erregistroak.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

ALDUNDIKO IDAZKARITZA:

- Diputatuen Kontseiluaren ohiko bilkuren akta kopurua.	45
- Kontseiluaren ohiz kanpoko bilkuren akta kopurua	3
GUZTIRA	48
- Diputatuen Kontseiluan hartutako xedapenak:	
-Zerga arloko premiazko araugintzako dekretuak	4
-Foru dekretuak	87
-Erabakiak	928
-Diputatu nagusiaren foru dekretuak	377
- Foru Aginduak:	
Foru administrazioa	626
Tokiko admin. eta Lurralde oreka	724
Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak	757
Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuak	50

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2009

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 04 DIRECCIÓN DE RÉGIMEN JURÍDICO

aprueban las Entidades Locales del Territorio Histórico en los casos de acogimiento expreso y general a la jurisdicción revisora foral y de convenios de gestión.

El Servicio de Secretaría Técnico-Jurídica, al que se ha adscrito la Sección de Atención Ciudadana, tiene entre sus cometidos, la elaboración del Proyecto de Presupuesto del Departamento, la realización del control y la gestión económica, administrativa y contable del mismo, la gestión de la edición del Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava así como la dirección de la Oficina de Comunicación con la Sociedad y del Registro de entrada y salida de documentos y atención al público, Europe Direct de Álava, la Secretaría de la Comisión Consultiva de la Administración Foral, y los Registros de Convenios y de Representantes.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

SECRETARÍA DE LA DIPUTACIÓN:

-Nº Actas Sesiones Ordinarias Consejo Diputados.	45
-Nº Actas Sesiones Extraordinarias Consejo	3
TOTAL	48
- Disposiciones adoptadas por el Consejo de Diputados:	
-Decretos Normativos de Urgencia Fiscal	4
-Decretos Forales	87
-Acuerdos	928
-Decretos Forales Diputado General	377
- Ordenes Forales:	
Administración Foral	626
Administrac.Local y Equilibrio Territ	724
Hacienda, Finanzas y Presupuestos	757
Política Social y Servicios Sociales	50

2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 04 ARAUBIDE JURIDIKOAREN
ZUZENDARITZA

Sustapen Ekonomiko eta Berrikuntza	343
Herrilan eta Garraioa	1041
Nekazaritza	432
Ingurumena	289
Euskara, Kultura eta Kirolak	445
Gazteria eta Gizarte Sustapena	64
- Hainbat Zuzendaritzen Ebazpenak	2.497
- Garraio gaietako ebazpenak	688
- Errepide kalteen gaineko ebazpenak	108
GUZTIRA	9.460
- Tramitaturiko espedienteak guztira	12
- Txosten eginak	50
- ARABAKO ADINGABEEN KONTSEILUA	
Ohiko eta ohiz kanpoko bilkuretako akta kopurua	2
- "NATURGOLF, S.A."REN KONTSEILUA	
Ohiko eta ohiz kanpoko bilkuretako akta kopurua	4
- Abalen askiespenei, lehiaketei, "Alava digital"erako sarbideei eta ALHAOk iragarkiei dagokienez, 4.000 bat egin dira.	

LEGE AHOLKULARITZA:

2009. urtean, 20 txosten egin dira, Foru Aldundiko Organoek, Zuzendariek eta Zerbitzu eta Negoziatuetako buruek ahoz egindako kontsultei erantzun, judizioz kanpoko erreklamazioak ebatzi eta Epaitegi eta Auzitegiek eskatutako informazio edo dokumentazioa eskuratzearaz gain.

Eremu judizialean, 127 prozedurei hasiera eman zaie eta 4 kasazio-errekurtso jarri dira urte horretan bertan.

Beste alde batetik, 87 errekurtsio edo prozedura

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2009

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 04 DIRECCIÓN DE RÉGIMEN
JURÍDICO

Innovación y Promoción Económica	343
Obras Públicas y Transportes	1041
Agricultura	432
Medio Ambiente	289
Euskera, Cultura y Deportes	445
Juventud y Promoción Social	64
- Resoluciones diversas Direcciones	2.497
- Resoluciones en materia de transportes	688
- Resoluciones en materia daños carreteras	108
TOTAL	9.460
- Total expedientes tramitados	12
- Informes emitidos	50
- CONSEJO DEL MENOR DE ÁLAVA	
Nº Actas Sesiones Ordinarias y Extraordinarias	2
- CONSEJO DE "NATURGOLF, S.A."	
Nº Actas Sesiones Ordinarias y Extraordinarias	4
- Respecto al número de bastanteo de avales, licitaciones, acceso "Álava digital" e inserción anuncios BOTHA, se han realizado del orden de 4.000.	

ASESORÍA JURÍDICA:

Además de atender las consultas verbales formuladas por los distintos Organos de la Diputación Foral, Directores y Jefes de los distintos Servicios y Negociados, así como de solventar las reclamaciones extrajudiciales y evacuar los requerimientos de información o documentación instados por Juzgados y Tribunales, ha realizado en el año 2009 un total de 20 informes.

En el ámbito judicial se han iniciado en dicha anualidad un total de 127 procedimientos y se han interpuesto 4 recursos de casación.

Por otra parte han finalizado en el ejercicio 87

2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 04 ARAUBIDE JURIDIKOAREN
ZUZENDARITZA

judizial burutu dira ekitaldian; eta, horietatik, 52 Foru Aldundiaren aldekoak izan dira, 8 aurkakoak izan dira, eskaerak edo errekurtsuak onetsi direlako, beste 2 errekurtsoren zati bat onetsi da, eta, azkenik, 25 errekurtsu burutu dira, egileek atzera egin dutelako, prozesutik kanpo gogobetetzeagatik, etab.

ARAUBIDEZKO GARAPENA ETA BILTZAR NAGUSIEKIKO HARREMANAK:

Araubidezko Garapenerako eta Biltzar Nagusiekiko Harremanetarako Zerbitzuari dagokionez, ondoko lan hauek egin ditu:

I.- Funtzioen sintesia:

- I.1) Administrazio arauzko xedapen nahiz ebazpenak eta parlamentu bultzada eta kontrolleko ekimenak egin, proposatu eta horien berri ematea.
- I.2) Aldundia eta Biltzar Nagusiak koordinatzeko unitatea izatea.
- I.3) Dokumentazio juridikoko lanak egitea.

II.- Egindako lanak:

1. egitekoa:

- 6 espediente, xedapen orokorrak eta administrazio ebazpenak prestatzeko (foru arau eta foru dekretuen proiektuak; Kontseiluaren akordioak, legezketasun eta aukera txostenekin; aurrekariak biltzeko lana; zuzendariaren ebazpenak).
- 37 txosten juridiko edota egokitasun txosten, araugintzako edo foru jardueraren kontrolleko ekimenei buruz.
- 2 espediente, parlamentuan jatorria duten araugintzako ekimenei buruz (aintzakotzat hartzeari buruzko irizpidea, foru arauko zuzenketak eta/edo proposamenak izapidetzearekin bat ez etortzea, etab.)
- 2 dokumentu-dosier, legealdi honetako edo beste batzuetako eta parlamentu ganberetako (beste lurralde batzuk eta Eusko Legebiltzarra) parlamentu ekimenei buruz.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2009

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 04 DIRECCIÓN DE RÉGIMEN
JURÍDICO

recursos o procedimientos judiciales de los cuales 52 han sido favorables a la Diputación Foral, 8 desfavorables por estimarse las demandas o recursos, otros 2 se han estimado parcialmente y, finalmente, 25 han terminado por desistimiento de los actores, satisfacción extraprocesal, etc.

DESARROLLO NORMATIVO Y RELACIONES CON LAS JUNTAS GENERALES:

En cuanto al Servicio de Desarrollo Normativo y Relaciones con las Juntas Generales, se han realizado los siguientes trabajos:

I.- Síntesis de las funciones:

- I.1) De informe, propuesta y elaboración de Disposiciones reglamentarias y resoluciones administrativas y de las iniciativas de impulso y control parlamentario.
- I.2) Unidad de coordinación de la Diputación con las Juntas Generales.
- I.3) Trabajos de documentación jurídica.

II.- Trabajos realizados:

Función 1:

- 6 Expedientes de elaboración de disposiciones generales y resoluciones administrativas (Proyectos de Norma Foral y de Decretos Forales; Acuerdos del Consejo, con informes de legalidad y oportunidad, recopilación de antecedentes; Resoluciones de Director)
- 37 Informes jurídicos y/o de oportunidad sobre iniciativas normativas o de control de la actividad foral.
- 2 Expedientes relativos a iniciativas normativas de origen parlamentario (criterio sobre la toma en consideración, disconformidad con la tramitación de enmiendas y/o proposiciones de norma foral, etc.)
- 2 Dossieres documentales de iniciativas parlamentarias de ésta u otras legislaturas y de las diversas Cámaras parlamentarias (otros Territorios y Parlamento Vasco)

2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 04 ARAUBIDE JURIDIKOAREN
ZUZENDARITZA

- 2 txosten, Eusko Jaurlaritza, Estatuaren eta beste Lurralde Historiko batzuen arautze jarduerari buruzkoak.

2. egitekoa:

- a) Agirien erregistroa: 2.380 idazpen
1.658 sarrerako idazpen
22 irteerako idazpen
- b) Sarrerako idazpenak hauekin lotuta daude:
- Deialdiak: Osoko bilkurak, ordezkarien biltzarra eta ohiko edo ohiz kanpoko batzordeak.
 - Moztotzat sailkatutako ekimenak, foru arauak, onartu ez diren foru arauen proposamenak, araugintzako dekretuak balioesteko akordioak, osoko bilkuretako beste akordio batzuk, interpelazioak, osoko bilkuretako galderak, batzordearen galderak, idatzizko galderak, informazio eskaerak, batzordeko agerraldiak eta Biltzar Nagusien beste jarduera batzuk.
- c) Irteerako idazpenak hauekin lotuta daude: Foru arau proiektuak, araugintzako foru dekretuak, jakinarazpenak, informazio eskaerei emandako erantzunak, idatzizko galderei emandako erantzunak, hileroko informazioak, asteko informazioak eta Foru Aldundiaren beste Erabaki batzuk.

Ekimen bakoitzak sarrerako eta irteerako erregistro batzuk sortzen ditu.

Ekimen bakoitzetik sortutako agiriak basis datu-basean informatizatutako espedienteetan jasotzen dira.

2009. urtean 1.103 espediente ireki dira.

3. egitekoa:

Hiru ataletan gauzatzen da:

- 1) Datu base juridikoa:
- Orobat, 1989an planifikatutako eta diseinatutako Arabako Lurralde Historikoaren xedapenei buruzko datu basea eguneratzen dihardu zerbitzuak.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2009

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 04 DIRECCIÓN DE RÉGIMEN JURÍDICO

- 2 Informes sobre actividad normativa GOVA, Estado y otros TTHH.

Función 2:

- a) Registro de documentos: 2.380 asientos
1.658 asientos de entrada
22 asientos de salida
- b) Los asientos de Entrada corresponden a:
- Convocatorias: de Plenos, Junta de Portavoces y Comisiones Ordinarias o Especiales.
 - Iniciativas clasificadas como Mociones, Normas Forales, Proposiciones de Norma Foral no aprobadas, Acuerdos de Convalidación de Decretos Normativos, Otros Acuerdos del Pleno, Interpelaciones, Preguntas Pleno, Preguntas Comisión, Preguntas escritas, Peticiones de Información, Comparecencias Comisión, Otras Actuaciones de las Juntas Generales.
- c) Los asientos de Salida corresponden a: Proyectos de Norma Foral, Decretos Forales Normativos, Comunicaciones, contestaciones a Peticiones de Información, contestaciones a Preguntas Escritas, Informaciones mensuales, Informaciones semanales, otros Acuerdos de Diputación.

Cada iniciativa da lugar a varios registros de entrada y de salida.

La documentación que produce cada iniciativa se recoge en expedientes informatizados en BASE DE DATOS BASIS.

En 2009 se han abierto 1.103 Expedientes.

Función 3:

Se desarrolla en tres apartados:

- 1) Base de datos jurídica:
- Se continúa con la actualización de la Base de Datos sobre las disposiciones del Territorio Histórico de Álava planificada y diseñada en 1989 por esta Unidad de Documentación.

2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 04 ARAUBIDE JURIDIKOAREN
ZUZENDARITZA

2009. urtean, bertan sortutako datuekin betebeteen sartuta jada, 917 xedapen berri gehitu dira (2009. urtean Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, bai eta beste Administrazio batzuen Aldizkari Ofizialetan argitaratutakoak hartu dira kontuan); hala, beraz, datu base horrek 17.862 erregistro ditu gaur egun, eta erregistro horietako bakoitzean orain arte izan diren aurrekariak, aldaketak, indargabetzeak edo garapenak agertzen dira.

- 2) Zerga izaerarik ez duen Arabako Lurralde Historikoko Foru Araudia.

667.981 sarreratik gora egin dira..

Basea, euskaraz zein gaztelaniaz, eguneratzeko lana egiten da, egunero, xedapenen aurrekari, garapen eta geroko aldaketen jarraipena eginez.

- 3) Egitura organikoak eta aldundiaren izendapenak

2009. urtean, egiturari eta izendapenei buruzko dekretuen aldaketak euskarri informatikoan jasotzen jarraitu dira, eguneraketan jarraipena egunero egin eta testu bateginak osatu direlarik.

Era berean, zenbait erakunderen araudiari buruzko 6 dokumentu-txosten egin dira.

ARABAKO LEGE ETA ADMINISTRAZIO ERAKUNDEA:

2009 ekitaldian, 346 erreklamazio izapidetzeko onartu zituen. Horietatik –gai adierazgarrienak aipatzearen– % 40 PFEZari dagozkio eta %23 hidrokarburoen zergari.

Aldi berean 282 erreklamazio ebatzi ziren; batez besteko iraupena 68 egunekoa izan zen; %30 onetsi egin ziren, %63 ezetsi eta gainerako ebazpenak beste

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2009

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 04 DIRECCIÓN DE RÉGIMEN JURÍDICO

En 2009, ya centrada en la generación propia, se han incorporado 917 nuevas Disposiciones (tomando como referencia su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava a lo largo del 2009 , así como en Boletines Oficiales de otras Administraciones), con lo que la citada Base de Datos dispone en la actualidad de 17.862 registros con sus respectivas referencias a antecedentes, modificaciones, derogaciones o desarrollos producidos hasta la fecha.

- 2) Normativa Foral no tributaria del Territorio Histórico de Álava.

Se han realizado más de 667.981 accesos.

Se realiza una labor diaria de actualización de la base, tanto en euskera como en castellano, logrando un seguimiento de las disposiciones tanto en sus antecedentes como en su desarrollo o posteriores modificaciones.

- 3) Estructuras Orgánicas y nombramientos de la Diputación

En el año 2009 se ha seguido con la recopilación las modificaciones de los Decretos de estructura y de nombramientos en soporte informático, haciendo un seguimiento al día, elaborando textos refundidos.

Asimismo se han elaborado 6 dossiers documentales sobre normativa de diversas instituciones

ORGANISMO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ÁLAVA:

Durante el ejercicio 2009 admitió a trámite 346 reclamaciones, de las que, por resaltar las materias más significativas, el 40% corresponden al IRPF y el 23% al Impuesto sobre Hidrocarburos.

En el mismo período resolvió 282 reclamaciones, con una duración media de 68 días, siendo los fallos un 30% estimatorios, un 63% desestimatorios y el resto de otro tipo. El stock a final de año es de 194 reclamaciones.

A 31 de diciembre el número de expedientes

2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 04 ARAUBIDE JURIDIKOAREN
ZUZENDARITZA

mota batekoak izan ziren. Urte bukaeran stockean 194 erreklamazio geratu ziren.

Abenduaren 31n, Euskal Autonomia Erkidegoko Justiziako Auzitegi Nagusiari bidalitako espediente kopurua 19 izan zen, eta ebatzi gabeko administrazioarekiko auzi errekurtsoen kopurua, 59.

Lege Erakundearen ebazpenen datu baseak, Interneten dagoenak, urte amaieran 1.320 dokumentu ditu.

IDAZKARITZA TEKNIKO-JURIDIKOKO ZERBITZUA:

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeari dagokionez, 2009. urtean 11 batzar egin ditu eta guztira 15 irizpen idatzi ditu, Diputatuen Kontseiluaren martxoren 30eko 40/1999 Foru Dekretuan adierazitako aginpideak betez.

Diputatuen Kontseiluaren 11 Erabaki izapidetu dira Foru Aldundiaren mendeko edo parte hartzen duen zenbait sozietate, organismo eta entitatetan ordezkariak izendatze aldera.

Ondoko hauek lizitatu dira: 2010ean foru eraikinak zelatatzeko eta eraikin horietan segurtasuna zaintzeko zerbitzuak; Arabako Foru Aldundiaren 2010erako publizitate kanpainen diseinua eta publizitatea egiteko zerbitzuak; foru erakundearen 2010erako catering zerbitzuak; komunikazio-plana; erakundeko argazkiak ateratzeko zerbitzuak; gizarte zerbitzuek aurrera egiteko plana; plan estrategikoa; protokolo zerbitzua hainbat materialez hornitzeko zerbitzua; eta Probintzia plazan jarriko den eskultura egiteko zerbitzua.

Herritarrentzako Arretaren Atalak honako jarduketak burutu ditu:

EUROPE DIRECT

2009ko ekitaldian, Europe Direct Bulegoaren jarduna honela laburbil daiteke:

INFORMAZIO JARDUERAK:

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2009

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 04 DIRECCIÓN DE RÉGIMEN JURÍDICO

remitidos durante el año al Tribunal Superior de Justicia del País Vasco es de 19 y el número de recursos contencioso-administrativos pendientes 59.

La Base de Datos de resoluciones del Organismo Jurídico disponible en internet tiene a final de año 1.320 documentos.

SERVICIO DE SECRETARÍA TÉCNICO JURÍDICA:

En relación con la Comisión Consultiva de la Administración Foral de Álava, en virtud de las competencias estipuladas en el Decreto Foral 40/1999, del Consejo de Diputados, de 30 de marzo, ha realizado 11 sesiones durante el año 2009, habiéndose redactado un total de 15 dictámenes.

Se han tramitado 11 Acuerdos del Consejo de Diputados, relativos a designación de representantes de la Diputación en las diferentes Sociedades, Organismos y Entidades en las que participa.

Se ha llevado a cabo la licitación de los servicios de vigilancia y seguridad de los edificios forales para 2010, de publicidad y diseño de las campañas publicitarias de la Diputación Foral de Alava 2010, de los servicios de catering para la institución foral durante 2010, del Plan de Comunicación, de fotografía institucional, de evolución de servicios sociales, del Plan estratégico, de suministro de diverso material para el servicio de Protocolo, Y de realización de instalación escultórica en la Plaza de la Provincia.

En cuanto a las acciones realizadas por la Sección de Atención Ciudadana, son las siguientes:

EUROPE DIRECT

Durante el Ejercicio de 2009 la actividad de la Oficina de Europe Direct, se puede resumir en:

ACTIVIDADES DE INFORMACIÓN:

Nº de visitantes: 482

Nº de Peticiones de información por teléfono:127

Nº de Email-s: 30

ACTOS (Visitas de grupos)

2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 04 ARAUBIDE JURIDIKOAREN
ZUZENDARITZA

Bisitari kopurua: 482
Telefonoz egin den informazio eskaera kopurua: 127
E-posta kopurua: 30

EKITALDIAK (taldeen bisitaldiak)

Bisita kopurua: 3
Parte hartzaile kopurua: 50
Bisitaldi hauetan dokumentazioa (liburuxkak, posterrak, aldizkariak eta abar) eta promozioko materiala banatzen dira.

ALHAO

2009 ekitaldian 149 ale argitaratu dira, 17.815 orrialde guztira, jarraian adierazi bezala banatu direnak:

Buletinak 16.192
Biltzar Nagusien gehigarria 287
Hitzarmen kolektiboen separata 472
Bestelakoei buruzko separata 864

2009an 8.876 iragarki argitaratu dira.

Paperezko buletinak hala eskatu duten 70 administrazio batzorderi bidali zaizkie, ez baitaukat azpiegitura egokia.

ERREGISTRO OROKORRA

Erregistro Orokorrak kopuru hauek izan ditu:

Sarrera:

gaztelaniaz 22.382
euskaraz 13
elebidunak 119
guztira 22.514

Irteera:

gaztelaniaz 9.337
euskaraz 14

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2009

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 04 DIRECCIÓN DE RÉGIMEN
JURÍDICO

Nº de Visitas: 3
Nº de Participantes: 50
En estas visitas se entrega documentación (folletos, posters, revistas, etc..) y material promocional.

BOTHA

Durante el Ejercicio 2009, se han publicado 149 números con un total de 17.815 páginas, que corresponden a:

Boletines 16.192
Suplemento Juntas Generales 287
Separata Convenios Colectivos 472
Separata Varios 864

Los anuncios publicados en 2009 han sido 8.876

Se envían los boletines en papel a 70 Juntas Administrativas que lo han solicitado, al no disponer de la infraestructura necesaria

REGISTRO GENERAL

Por el Registro General se han realizado las siguientes cifras:

Entrada:

castellano 22.382
euskera 13
bilingüe 119
total 22.514

Salida:

castellano 9.337
euskera 14
bilingüe 9.451
total 18.816

Registros de entrada enviados por los Ayuntamientos suscritos al Convenio de Registro

Ribera Alta / Erribera Goitia 1

2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 04 ARAUBIDE JURIDIKOAREN
 ZUZENDARITZA

elebidunak	9.451
guztira	18.816
Erregistro Hitzarmena izenpetu duten udalek bidalitako sarrera-erregistroak	
Ribera Alta / Erribera Goitia.....	1
Lagran	2
Ribera Baja / Erribera Beitia	-
Elvillar / Bilar	-
Elciego / Ziego	1
Iruraiz-Gauna	-
Mañueta	1
Eskuernaga	-
Ordoñana – San Millan	-
Lapuebla de Labarca	-
Aramaio	-
Asparrena	4
Legutiano	3
Harana	8
Alegria/Dulantzi	-
Añana	-
Samaniego	3
Moreda Araba / Moreda de Álava	-
Barrundia	-
Arraia-Maeztu.	-
Aiara	3
Gaubea	-
Guztira	26

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2009

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 04 DIRECCIÓN DE RÉGIMEN
 JURÍDICO

Lagrán	2
Ribera Baja / Erribera Beitia	-
Elvillar / Bilar	-
Elciego / Ziego	1
Iruraiz-Gauna	-
Baños de Ebro	1
Villabuena de Alava	-
Ordoñana – San Millan	-
Lapuebla de Labarca	-
Aramaio	-
Asparrena	4
Legutiano	3
Valle de Arana	8
Alegria-Dulantzi	-
Añana	-
Samaniego	3
Moreda de Álava	-
Barrundia	-
Arraia-Maeztu	-
Ayala	3
Valdegovia	-
Total	26